


Euskal AEko heriotzak % 0,4 gehitu ziren 2024ko lehen hiruhilekoan

COVID-19ak eragindako heriotzak % 17,3 gehitu dira

Eustaten datuen arabera, 2024ko lehen hiruhilekoan 6.235 heriotza izan ziren Euskal AEn, aurreko urteko aldi berean baino 22 gehiago, hau da, % 0,4 gehiago. Aurreko urteekin alderatuta, 2024ko lehen hiruhileko honetako heriotza-kopurua 2022koa (6.439) eta 2020koa (6.522) baino txikiagoa izan zen, baina 2023koa (6.213), 2021ekoa (5.994) eta 2010-2019koa (5.813) baino handiagoa.

Euskal AEko egoiliarren heriotzak, hilabeteka



Iturria: Eustat. Heriotzen estatistika

Lurralde Historikoka, Bizkaian 3.400 heriotza izan dira hiruhileko honetan, % 3,6ko gehikuntza, altuena. Araban, 804 heriotzarekin, gehikuntza % 0,5ekoa izan zen. Gipuzkoan, berriz, 2.031 heriotzarekin, % 4,7ko jaitsiera izan da.

Sexuen arabera, 3.233 emakume eta 3.002 gizon hil ziren; hau da, emakumeak % 2 gehitu ziren eta gizonak % 1,4 jaitsi. Lehenengo hiruhilekoan izandako heriotzen artean, 8 heriotza urtebetetik beherakoak izan ziren, heriotza guztien % 0,1. Ehun urteko 128 pertsona hil ziren (guztien % 2,1), hau da, aurreko urteko hiruhileko berean baino % 13,3 gehiago. Emakumeak % 85,9 ziren.

Heriotzak bizilekuaren lurraldearen, betetako adinaren, sexuaren eta heriotza-hilabetearen arabera (1). 2024/I

	2024/I				2023/IV				2023/I		
	KOP	%	KOP	%	Gehikuntza (%)		KOP	%	Gehikuntza (%)		
HERIOTZAK	6.235	100,0	5.702	100,0	9,3		6.213	100,0	0,4		
Egoitza duen lurraldea											
Araba / Álava	804	12,9	772	13,5	4,1		800	12,9	0,5		
Bizkaia	3.400	54,5	3.089	54,2	10,1		3.282	52,8	3,6		
Gipuzkoa	2.031	32,6	1.841	32,3	10,3		2.131	34,3	-4,7		
Adina											
1 urtetik beherakoak	8	0,1	11	0,2	-27,3		8	0,1	0,0		
1-19 urte	12	0,2	10	0,2	20,0		9	0,1	33,3		
20-39 urte	28	0,4	36	0,6	-22,2		37	0,6	-24,3		
40-59 urte	345	5,5	350	6,1	-1,4		336	5,4	2,7		
60-79 urte	1.665	26,7	1.619	28,4	2,8		1.687	27,2	-1,3		
80-99 urte	4.049	64,9	3.538	62,0	14,4		4.023	64,8	0,6		
100 urte edo gehiago	128	2,1	138	2,4	-7,2		113	1,8	13,3		
Gizonak	3.002	100,0	2.781	100,0	7,9		3.044	100,0	-1,4		
1 urtetik beherakoak	5	0,2	6	0,2	-16,7		5	0,2	0,0		
1-19 urte	6	0,2	6	0,2	0,0		4	0,1	50,0		
20-39 urte	17	0,6	27	1,0	-37,0		24	0,8	-29,2		
40-59 urte	257	8,6	223	8,0	15,2		224	7,4	14,7		
60-79 urte	1.057	35,2	1.043	37,5	1,3		1.070	35,2	-1,2		
80-99 urte	1.642	54,7	1.449	52,1	13,3		1.702	55,9	-3,5		
100 urte edo gehiago	18	0,6	27	1,0	-33,3		15	0,5	20,0		
Emakumeak	3.233	100,0	2.921	100,0	10,7		3.169	100,0	2,0		
1 urtetik beherakoak	3	0,1	5	0,2	-40,0		3	0,1	0,0		
1-19 urte	6	0,2	4	0,1	50,0		5	0,2	20,0		
20-39 urte	11	0,3	9	0,3	22,2		13	0,4	-15,4		
40-59 urte	88	2,7	127	4,3	-30,7		112	3,5	-21,4		
60-79 urte	608	18,8	576	19,7	5,6		617	19,5	-1,5		
80-99 urte	2.407	74,5	2.089	71,5	15,2		2.321	73,2	3,7		
100 urte edo gehiago	110	3,4	111	3,8	-0,9		98	3,1	12,2		
HERIOTZA-HILABETEA											
Urtarrila	2.389	38,3			2.174		35,0	9,9			
Otsaila	1.830	29,4			1.937		31,2	-5,5			
Martxoa	2.016	32,3			2.102		33,8	-4,1			
(1)Hiruhileko honetako datuak behin-behinekoak dira. Aldaketak oraingo hiruhilekoaren aldean dira											

Data 2024ko Irailaren 18a

Iturria: Eustat. Heriotzen Estatistika

Tumoreek eta zirkulazio-gaixotasunek heriotzen % 50,4 eragiten dute

Heriotza-kausa nagusiak tumoreak eta zirkulazio-sistemako gaixotasunak izan ziren, 1.571 eta 1.570 heriotza eragin baitzituzten, hurrenez hurren; beraz, bien artean heriotzen % 50,4 izan ziren. Hirugarren heriotza-kausa arnas sistemaren kausak izan ziren, 683 kasurekin (% 11). Nerbio-sistemaren ondoriozko heriotzak laugarren heriotza-kausa izan ziren, 417 heriotzarekin (% 6,7). Digestio-sistemako gaixotasunek eragindako heriotzak 266 izan ziren (% 4,3).

Heriotzen kausen hurrenkerak desberdina izaten jarraitu zuen gizonentzat eta emakumeentzat. Gizonen artean, tumoreak zirkulazio-sistemako gaixotasunak baino gehiago izan ziren; emakumeen artean, berriz, zirkulazio-sistemako gaixotasunak izan ziren kausa nagusia, eta tumoreak bigarren.

Heriotzak heriotza-arrazoiaren eta sexuaren arabera (1). 2024/I

					2024/I		2023/IV			2023/I			
					KOP	%	KOP	%	Gehikuntza (%)	KOP	%	Gehikuntza (%)	
HERIOTZAK					6.235	100,0	5.702	100,0	9,3	6.213	100,0	0,4	
Heriotza-kausa													
Guztira													
Neoplasiak					1.571	25,2	1.610	28,2	-2,4	1.622	26,1	-3,1	
Zirkulazio sistema					1.570	25,2	1.437	25,2	9,3	1.646	26,5	-4,6	
Arnas sistema					683	11,0	451	7,9	51,4	543	8,7	25,8	
Nerbio sistema					417	6,7	415	7,3	0,5	405	6,5	3,0	
Txegoste sistema					266	4,3	245	4,3	8,6	306	4,9	-13,1	
Gainerako kausak					1.728	27,7	1.544	27,1	11,9	1.691	27,2	2,2	
					COVID-19 baieztatuta	88	1,4	74	1,3	18,9	75	1,2	17,3
					COVID-19 probablea	0	0,0	0	0,0	0,0	0	0,0	0,0
					Bestelakoak	1.640	26,3	1.470	25,8	11,6	1.616	26,0	1,5
Gizonak													
Neoplasiak					939	31,3	956	34,4	-1,8	982	32,3	-4,4	
Zirkulazio sistema					742	24,7	695	25,0	6,8	762	25,0	-2,6	
Arnas sistema					317	10,6	226	8,1	40,3	278	9,1	14,0	
Nerbio sistema					166	5,5	168	6,0	-1,2	160	5,3	3,8	
Txegoste sistema					120	4,0	124	4,5	-3,2	162	5,3	-25,9	
Gainerako kausak					718	23,9	612	22,0	17,3	700	23,0	2,6	
					COVID-19 baieztatuta	38	1,3	42	1,5	-9,5	37	1,2	2,7
					COVID-19 probablea	0	0,0	0	0,0	0,0	0	0,0	0,0
					Bestelakoak	680	22,7	570	20,5	19,3	663	21,8	2,6
Emakumeak													
Neoplasiak					632	19,5	654	22,4	-3,4	640	20,2	-1,3	
Zirkulazio sistema					828	25,6	742	25,4	11,6	884	27,9	-6,3	
Arnas sistema					366	11,3	225	7,7	62,7	265	8,4	38,1	
Nerbio sistema					251	7,8	247	8,5	1,6	245	7,7	2,4	
Txegoste sistema					146	4,5	121	4,1	20,7	144	4,5	1,4	
Gainerako kausak					1.010	31,2	932	31,9	8,4	991	31,3	1,9	
					COVID-19 baieztatuta	50	1,5	32	1,1	56,3	38	1,2	31,6
					COVID-19 probablea	0	0,0	0	0,0	0,0	0	0,0	0,0
					Bestelakoak	960	29,7	900	30,8	6,7	953	30,1	0,7
(1)Hiruhileko honetako datuak behin-behinekoak dira. Aldaketak oraingo hiruhilekoaren aldean dira													

Data 2024ko Irailaren 18a

Iturria: Eustat. Heriotzen Estatistika

Hazkunde begetatiboa negatiboa izan zen hiru lurralde historikoetan

Euskal AEko hazkunde begetatiboa negatiboa izan zen 2024ko lehen hiruhilekoan, heriotzak jaiotza-kopurua baino 3.076 gehiago izan baitziren. Saldo negatibo hori 1.864 pertsonakoa izan zen Bizkaian, 910ekoa Gipuzkoan eta 302koa Araban.

COVID-19ak eragindako heriotzak 88 izan ziren 2024ko lehen hiruhilekoan

COVID-19ak 88 heriotza eragin zituen, hau da, hiruhileko honetako heriotza guztien % 1,4. Kopuru horrek esan nahi du % 17,3ko igoera izan dela 2023ko lehen hiruhilekoarekin alderatuta, 75 heriotza izan baitziren. 2024ko lehen hiruhilekoan heriotza guztiak COVID-19arekin baieztatu ziren. Eta, gainera, beste 6 heriotza izan ziren, zeinetan COVID-19a egiaztatutako heriotza-kausen artean egon zen, baina funtsezko kausa izan gabe.

Euskal AEko heriotzak, lurralde historikoaren, bizilekuko udalerriaren (>40.000 bizt.), sexuaren eta adinaren arabera, COVID-19ekin lotutako heriotza-kausei jarraiki. 2024/I

	Heriotzak guztira	COVID-19 guztira	COVID-19 baieztatuta	COVID-19 probalea
Euskal AE	6.235	88	88	0
Bizileku-lurralde historikoak				
Araba/Álava	804	13	13	0
Bizkaia	3.400	56	56	0
Gipuzkoa	2.031	19	19	0
Bizileku-udalerria (>40.000 biztanle)				
Barakaldo	298	10	10	0
Basauri	139	2	2	0
Bilbao	1.091	23	23	0
Donostia / San Sebastian	564	5	5	0
Gebro	211	5	5	0
Irun	167	2	2	0
Portugalete	163	2	2	0
Santurtzi	154	3	3	0
Vitoria-Gasteiz	602	11	11	0
Sexua				
Gizonak	3.002	38	38	0
Emakumeak	3.233	50	50	0
Adina				
40 urtetik beherakoak	48	0	0	0
40 urtetik 59ra	345	1	1	0
60 urtetik 79ra	1.665	15	15	0
80 urte edo gehiago	4.177	72	72	0

Data 2024ko Irailaren 18a


Iturria: Eustat. Heriotzen Estatistika

Lurralde historikoka, zifrarik altuena Bizkaiari dagokio (56), ondoren Gipuzkoari (19) eta, azkenik, Arabari (13). Hiriburuei dagokienez, Bilbo nabarmendu behar da, 23 heriotza eragin baititu COVID-19ak; ondoren, Gasteiz (11) eta Donostia (5) daude. Nabarmentzekoa da Barakaldoko udalerria, arrazoi horrengatik 10 pertsona hil baitira.

Emakumeen heriotza-kopurua (50) gizonena (38) baino handiagoa izan zen; aldiz, adinaren arabera, 80 urtetik gorakoena izan zen (72), ondoren 60-79 urte bitartekoena (15).

Heriotza gehienak Euskal AEko ospitaleetan gertatu ziren (% 93,2), gero egoitza soziosanitarioetan (% 4,5) eta ondoren etxebizitzetan (% 2,3).

Bizilekua Euskal AEn zutenen heriotzak. Hileko datuak



Iturria: Eustat. Heriotzen estatistika

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

C/ Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prensa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.es Tlf: 945 01 75 62